Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2969

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 22koa, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordearena, lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko ezarri diren kredituen zenbateko osoa zein den jakinarazteko dena.

Lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko 58.3 artikuluan, publizitatearen printzipioari buruzkoan, arautzen denez, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordeak, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpen baten bidez, urtero emango du jakitera aipatutako dekretuan aurreikusten diren diru-laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen —edo horien eguneratzearen emaitzaren— zenbatekoa. Hori guztia dela-eta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuko II. kapitulutik V. kapitulura aurreikusitako laguntza-lerroak Enpleguaren 32110 azpiprogramaren kontura finantzatzeko, 2009ko aurrekontu arruntean eta zenbait urtetarakoetan (2010, 2011, 2012 eta 2013koetan) ezarritako kredituen zenbateko osoa jakitera ematea. Zenbateko hori guztira 16.995.791,00 eurokoa da.

Bigarrena.– Jakitera ematea 329/2003 Dekretuko II. kapituluan adierazitako desgaituentzako laguntzak Europako Gizarte Funtsaren % 50eko kofinantziazioarekin eman direla, Euskal Autonomia Erkidegoko EGIF 2007-2013 Programa Operatiboaren barruan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 22a.

Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea,
JUAN JOSÉ LOROÑO DOISTUA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2969

RESOLUCIÓN de 22 de abril de 2009, del Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social, por la que se da a conocer el importe total de los créditos asignados para la financiación de las ayudas previstas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo.

A los efectos de dar cumplimiento al principio de publicidad regulado en el artículo 58.3 del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo, en el que se establece que el Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social, mediante Resolución que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco dentro del primer trimestre de cada ejercicio económico, dará a conocer anualmente el importe total de los créditos asignados para la financiación de las líneas de ayudas previstas en el Decreto citado, o, en su caso, el importe que resulte de su actualización,

RESUELVO:

Primero.– Hacer público el importe total de los créditos asignados del presupuesto ordinario 2009 y los plurianuales de 2010, 2011, 2012 y 2013, para la financiación de las líneas de ayudas previstas en los capítulos II a V del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo, con cargo al subprograma 32110 de Empleo asciende a 16.995.791,00 euros.

Segundo.– Comunicar que las ayudas otorgadas a las personas con discapacidad recogidas en el capítulo II del Decreto 329/2003 están cofinanciadas al 50% por el Fondo Social Europeo en el marco del Programa Operativo FSE País Vasco, 2007-2013.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso de alzada ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social,
JUAN JOSÉ LOROÑO DOISTUA.